



I. TITULUA

SOZIEATEAREN IZENA, XEDEA, HELBIDEA ETA IRAUPENA

1. art. Honen bidez, BADESA, SA izeneko sozietate anonimoa eratzen da. Debabarrenako Mankomunitatearena izango da sozietate anonimo horren gaitasun sozial osoa, eta honako arau hauek aplikatuko zaizkio: estatutu hauek; sozietate anonimoen araubide juridikoari buruzko xedapenak (nagusiki, Kapital Sozietateen Legearen testu batetgia onartzen duen 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilea); Merkataritza Erregistroaren Araubidea onartzen duen 1748/1996 Errege Dekretua; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko sektore publikoko sozietateei aplikatzen zaien legeria -IGAEk onorio horietarako egindako kalifikazioaren arabera-; eta izaera gehigarriarekin aplikatzen diren toki araubideko arauak.
2. art. Hau izango da BADESA, SAren xede soziala: Debabarrenako Mankomunitatearen eskumeneko zerbitzu guztiak ustiatzea, eta, Batzar Orokorren arabera eta hark adostutako forma juridikoarekin, xede sozial horrekin zuzenean edo zeharka lotura duten eragiketa guztiak egitea.
- 2 bis art. Bitarteko propio pertsonifikatua
Sozietatea Debabarrenako Mankomunitateko bitarteko propio pertsonifikatua da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 32.2 artikuluan adierazitako irismenaren arabera.
Debabarrenako Mankomunitateko Batzar orokorrak enkarguzko esparru-hitzarmen bat onartu beharko du, non BADESAk bitarteko propio gisa eman beharreko zerbitzu-sorta jaso beharko baita.
BADESAk ezingo du parte hartu Debabarrenako Mankomunitateak deitutako lizitazio publikoetan. Hala ere, lizitazailerik aurkeztu ezean, lizitazioak xede duen prestazioa betetzea eskatu ahal izango zaio BADESAri.
3. art. Hau izango da BADESA SAren egoitza soziala: Egigurentarren kalea, 2 zenb. behe, Eibar. Administrazioalek ahalmena izango dute beste edozein lekutan ordezkariak jartzeko, baldin eta enpresaren martxa egokirako egokia iruditzen bazaie.
4. art. Sozietatearen iraupena mugagabea edo zehaztugabea izango da, eraketa-eskritura sinatzean emango zaie hasiera jardueri.

II. TITULUA

KAPITALA ETA AKZIOAK

5. art. Sozietatearen kapital soziala 180.303,63 eurokoa izango da, hiru mila akzio izendunetan banatuta (bakoitza 60,10 euroko balio nominalakoa). Kapital hori guztia izenpetua eta ordaindua dago.
Akzio horiek guztiak Debabarrenako Mankomunitatearen jabetza eskusibokoak dira.
Kapital soziala osatzen duten akzioak hiru mila tituluren bidez daude ordezkaturak. Akzio horiek batetik hiru



milara zenbakituta daude, biak barne. Akzio horiek ordezkaten dituzten tituluak askotarikoak izan daitezke. Bi kontseilarik sinatu behar dituzte, nahiz eta sinadura horietako bat zigilatua izan daitekeen.

6. art. Kapital soziala behin edo gehiagotan handitu edo murriztu ahal izango da.

III. TITULUA

SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIOA

7. art. Batzar Orokorrak eta Administrazio Kontseilukoak dagozkien eskuduntzen barruan hartutako erabakiek gidatuko dute sozietatea.

A) BATZAR OROKORRA

8. art. Batzar orokorra da Debabarrenako Mankomunitateko organo plenarioa.

9. art. Batzar orokorraren ahalmenak

Ohiko batzar orokorrek nahiz bereziek subiranotasun osoa izango dute gai sozial guztiak eztabaidatzeko, eta indarrean dagoen legeriaren arabera organo errektoreek dituzten eskumenak izango dira muga bakarra. Bereziki, ahalmen hauek izango dituzte:

- a) Memoria, balantzea eta kontuak aztertu, eztabaidatu eta onartu edo baztertzea eta emaitzaren aplikazioari buruz erabakitzea.
- b) Administrazio Kontseiluaren kudeaketa onartu edo baztertzea eta, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideei dagozkien erantzukizunak eskatzea, albo batera utzi gabe horiek kargugabetzeko aukera.
- c) Administrazio Kontseiluak eskatutako gaiei buruz hausnartu eta erabakiak hartzea.
- d) Administrazio Kontseilua eratu behar duten pertsonak izendatzea eta lehendakaria eta lehendakariordea izendatzea.
- e) Zuzendari nagusia eta sozietateko goi-karguak izendatu eta banantzea. Behin-behineko langile gisa hartuko dira, eta administrazio publikoetan mota horretako langileek duten antzeko araubidea izango dute.
- f) Kapital soziala handitu edo murriztu dadin adostea –behin edo gehiagotan–, eta akzioak jaulki edo amortizatzea.
- g) Zorpetze-eragiketak baimentzea, tokiko sozietate publikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako araubide juridikoarekin bat.
- h) Sozietatea eraldatu, desegin eta likidatzea eta beste sozietate batekin edo batzuekin bateratzea –eratauta nahiz eratzeke daudenak–, sozietate publiko, bitarteko propio eta sektore publikoaren barruko zerbitzu tekniko gisa dagokion araudi aplikagarrian adierazitako moduan.



- i) Batzarraren eskumenekoak izango dira legeak esleitutako gai guztiak. Halaber, Batzar Orokorrak erabakiko du nola ordainduko diren dibidendu pasiboak, nola jaulkiko diren obligazioak eta nola banatuko diren sozietatearen ondasunak.
Horrez gainera, Batzar Orokorrak eskumena izango du administratzaileek haren gain jarritako gaitan, bai eta, estatutu hauen arabera, haren eskumen eskusibokoak diren funtzioekin lotutakoetan ere.
- j) Estatutuko edozein zati edo gai erreformatzea.

- 10. art. Batzar Orokorrak arruntak edo bereziak izan daitezke, eta Administrazio Kontseiluko lehendakariak deitu behar ditu.
- 11. art. Administratzaileei negozioaren eta sozietatearen operazioen martxa onerako egoki iruditzen zaienean elkartu beharko da Batzar Orokorra, eta, nahitaez, Batzar Orokor arrunta egin beharko da, ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan –urte amaierako balantzea amaitzen denetik aurrera–, sozietatearen kudeaketa aztertzeko, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko –hala badagokio– eta etekinen banaketari buruzko memoriari eta proposamenari buruz eztabaidatzeko.
- 12. art. Administrazio Kontseiluko lehendakariak gidatuko du Batzar Orokorra. Idazkari lanak, berriz, Debabarrenako Mankomunitateko idazkariak egingo ditu edo hark eskuordetutako pertsonak (zuzenbidean lizentziatua izan behar du).
- 13. art. Lehendakariaren eta idazkariaren sinadurarekin baimenduko dira Batzar Orokorraren aktak, eta idazkariak egingo ditu akta horien ziurtagiriak, lehendakariak ontzat emanda.

B) ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

- 14. art. Administrazio Kontseiluari dagokio sozietatea administratu eta ordezkatzea, eta Batzar Orokorrak izendatuko du.
- 15. art. Administrazio Kontseiluak bostetik gorako eta bederatzitik beherako kide kopurua izan behar du. Batzar Orokorrak izendatuko ditu, eta, gutxienez, bi urteko eta, gehienez, bost urteko iraupena izango du. Batzar Orokorrak izendatutako pertsonak gidatuko du Administrazio Kontseilua, eta izendapen hori egin ezean, Administrazio Kontseiluak bere kideen artean izendatuko du kargu hori beteko duena. Lehendakariaren lekua hutsik badago, ez badago edo gaixorik badago, lehendakariordeak edo adinez nagusiena den kideak ordezkatuko du.
Batzar Orokorreko idazkaria izango da Administrazio Kontseiluko idazkaria, zeinak ahotsa izango baitu –baina ez botoa– Administrazio Kontseiluak egindako akordioetan. Idazkaria ez badago, Administrazio Kontseiluak bileran bertan izendatutako kontseilariak ordezkatu ahal izango du. Administrazio Kontseiluko eta Batzar Orokorreko aktak idazteko idazkari karguari dagozkion funtzioak bete beharko ditu.
Ezingo dira kontseilari izan Kapital Sozietateen Legeko 124. artikuluan jasotako debekuak dituztenak, ez eta administrazio publikoetako goi-kargu eta funtzionarioen bateraezintasunak arautzen dituen legerian



jasotako bateraezintasun-arrazoiak betetzen dituztenak ere.

Kontseilarien izendapena iraungi egingo da, dagokion epea amaiturik, hurrengo Batzar Orokorra egiten denean edo Batzar Orokor arrunta egiteko legezko epea igarotzen denean.

Batzar Orokorrak edozein unetan adostu ahal izango du Administrazio Kontseilu kideak banantzea. Halaber, libreki uko eginez utzi ahal izango dute kargua. Kasu horretan, idatziz jakinarazi beharko diote sozietateari.

Administrazio Kontseiluaren bileretan parte hartu ahal izango dute –ahotsarekin baina botorik gabe– sozietatearen zuzendari, langile eta aholkulariek, baldin eta lehendakariak deitzen baditu.

16. art. Administrazio Kontseilua egoitza sozialean elkartuko da, lehendakariak libreki erabakitako salbuespenezko egoeretan izan ezik. Kasu horietan, hark erabakitako lekuan elkartuko dira.

Lehendakariak edo haren ordezkariak deitu beharko du, posta elektronikoko bidez eta, gutxienez, hiru eguneko aurrerapenarekin. Administrazio Kontseilua hiru hilean behin elkartu beharko da, gutxienez. Lehendakariak Administrazio Kontseilua deitu beharko du, baldin eta bi kontseilarik edo gehiagok eskatzen badute. Administrazio Kontseilua hiru hilean behin elkartuko da, gutxienez.

17. art. Kontseiluaren botereak. Administrazio Kontseiluak botererik zabaldu izango ditu sozietatearen jardura zuzentzeko. Hala, administrazioko, ordezkarietako nahiz nagusitasun hutsezko jarduerak egin ditzake, muga bakar izanik legeetan eta estatutu hauetan Batzar Orokorren eskumen eksklusibo gisa zehazten direnak.

Hortaz, Administrazio Kontseiluak ahalmena du, sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, xedapenezko, obligaziozko eta nagusitasun hutsezko mota guztietako administrazio-egintza eta -negozioak egiteko, pertsona fisiko edo juridiko ororekin (baita organismo ofizial eta finantza-erakunde eta banketxeekin ere, albo batera utzi gabe Espainiako Bankua eta banku ofizialak). Ahalmen zabal horien artean, hauek aipatu behar dira, besteak beste:

- A. Mota guztietako ondasunak –higigarriak nahiz higiezinak–, aziendak, salgaiak, balore-tituluak, efektuak, emakidak, kredituak eta eskubide higigarriak erosi, saldu, besterendu eta trukatzeko; hartarako epeak, prezioak eta egoki irizitako gainerako baldintza nagusi nahiz osagarriak finkatuz; lehentasunez erosteko eskubideak eta atzera eskuratzeko akzioak ezarri eta gauzatzea baldintza etengarri eta suntsiarazleetan.
- B. Sozietatearen ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea, zentzurik zabalenean, eta obra berriaren adierazpenak, mugaketak, mugariztatzeak, taldekatzeak, banantzeak, antolaketak, banaketa materialak, finken partzelazioak eta aldaketak eta Jabetza Erregistroko idazpenetan zuzenketak eta azalpenak egitea. Jabetza horizontalaren araubideko jabeakideen erkidegoen estatutuak onartu eta zuzentzea.
- C. Errentamendu kontratuak, azpierreten emateko kontratuak, negozio-lokalen traspasatzeak eta bestelako erabilera- eta gozamen-lagatzeak zehaztu, aldatu, indargabetu eta iraungitzea, baita finantza-errentamendua edo “leasing”a ere.
- D. Sozietatearen ondasunen gainean hipotekak eta bestelako karga edo eskubide errealak eratu edo subrogatu, kalifikatu, murriztu, handitu, onartu, atzeratu eta indargabetzea.



- E. Dirua maileguan edo partaidetza-kontuetan eman eta hartzea –interes, bahi, hipoteka eta bestelako edozein bermerekin edo bermerik gabe eta edozein baldintzarekin–; efektuak eta mota guztietako balio-tituluak erosi, saldu, besterendu, negoziatu eta lagatzea edozein motatako pertsona, banku-entitate eta kreditu-erakunderi, baita Espainiako Bankuari eta haien sukursal eta aurrezki-kutxei ee.
- F. Mota guztietako sozietateak edo enpresak eratzen laguntzea, akzioak edo partaidetzak sinatzea eta guztiak edo zati bat ordaintzea, estatutuak ordaindu eta onartzea, karguak izendatu eta onartzea eta eratutako sozietateei ahalmenak eskuordetzeko botereak ematea eta onartzea.
- G. Sozietatearen interesekoa den edozein gai, eskubide, zalantza, auzi eta desberdintasuni buruzko hitzarmenak eta konpromisoak tratatu, onartu eta egitea, eta horien gaineko erabakia arbitroen esku uztea ala ez.
- H. Kontu korronteak –agerikoak nahiz epekakoak– aurrezki-libretak eta kreditu-kontuak ireki, jarraitu, xedatu, likidatu eta indargabetzea mota guztietako banku ofizial eta pribatuetan eta kreditu-erakundeetan, baita Espainiako Bankuan, aurrezki-kutxetan, kreditu-kooperatibatan eta -erakundeetan nahiz horien sukursal edo agentzietan, hartarako taloiak, txekeak eta ordainketa- eta transferentzia-aginduak eginez eta kontu-laburpenak eskatuz eta onartuz.
- I. Kanbio-letrak, txekeak, ordaindukoak, ordainagiriak eta gainerako igorpen- eta kreditu-dokumentuak egin, onartu, endosatu, bermatu, deskontatu, negoziatu, kontrolatu, agindu, kobratu, ordaindu eta onarpen- edo ordainketa-faltagatik protestatzea segurtasun gehiagorako.
- J. Eskudirutan egindako mota guztietako balio eta efektuen gordailu eta bidalketak eratu, onartu, atzeratu, baztertu eta baliogabetzea, edozein organismo ofizial eta partikularretan, baita gordailu-kutxa orokorrean eta Espainiako Bankuan edo beste edozein banketxe edo aurrezki-kutxatan ere. Fidantzak eratu, onartu, aldatu eta baliogabetzea.
- K. Lehiaketa, enkante eta lehiaketa-enkanteetan parte hartzea –borondatezkoak, judizialak nahiz administratiboak eta ondasun, obra, zerbitzu publiko nahiz administrazio-emakidei buruzkoak– mota guztietako agintari eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean. Hartarako, aukera izango da aurrez gordailuak eta fidantzak esleitzeko, jarrerak formulatu eta hobetzeko, erremateak lagatzeko, erreklamaturako kreditu guztiak edo zati bat ordaintzeko ondasunak adjudika daitezzen eskatzeko, kargu baten likidazioa onartzeko, behin-behineko nahiz behin-betiko fidantzak formalizatzeko eta albo batera uzteko, enkantean jarritakoaren, adjudikatutakoaren eta emandakoaren prezioa edo zenbatekoa kontsignatzeko eta parte hartutako enkanteen ondorioz egin beharreko kontratuak sinatzeko –dagozkion eskritura publikoak barne–. Halaber, aukera egongo da sor daitezkeen intzidentzietan parte hartzeko eta, bereziki, obra edo horniduren prezioagatik, kontratuen zenbatekoagatik edo bestelako kontzeptuengatik sozietateari ordaindu beharreko zenbatekoak erreklamatu, jaso eta kobratzeko, hartarako dagozkion ordainagiriak eta ordainketa-gutunak eginez.
- L. Zerbitzu-kontratuak eta obra-exekuzioak, entregak eta horniketak egitea lehiaketa bidez, enkante bidez edo zuzenean, eta horien prezioak eta gainerako baldintzak zehaztea eta kontratu horiek bete eta betearaztea.
Mota guztietako produktuak fabrikatzeko, merkaturatzeko, saltzeko eta banatzeko kontratuak egitea, izaera eskusiboarekin nahiz izaera eskusiborik gabe.
- M. Sozietateak jaso edo ordaindu beharreko mota guztietako kopuruak kobratu eta ordaintzea,



partikularren bitartez nahiz mota guztietako erakunde publiko edo pribatuen bitartez –baita ministerio eta organismo ofizialak ere (estatu mailakoak, erkidego mailakoak, foralak, probintzia mailakoak, tokikoak edo paraestatalak eta horien bulegoak)–, kopuru-mugarik gabe eta sozietatearen eskubidearen iturria edozein izanik, eta hartarako ordainketa-gutunak, ordainagiriak, fakturak eta igorpenak sinatzea.

Titulu amortizatuen kupoiak, dibidenduak eta zenbatekoak kobratzea. Bidegabeko sarreren itzulketak eskatzea.

Kontuak likidatu, saldoak finkatu eta kitatu eta ordainagiriak eta deskarguak formalizatzea.

- N. Agintari, funtzionario, korporazio, administrazio publikoetako bulego, sindikatu, aduana, fiskaltza, ogasun-ordezkaritza eta, oro har, mota guztietako erakunde publiko eta partikularren aurrean honako hauek kudeatu eta erreklamatzeko: sozietateari eragiten dioten mota guztietako espedienteak eta sozietateren ondasun eta negozioei buruzko dokumentu oro ireki, izapidetu, ezagutu eta indargabetzea, hartarako aipaturiko organismo eta bulegoetan agertzea, beharrezkoak diren idatziak aurkeztuz, eta ezarritako probidentziari errekurtsua jartzea –baldin eta lesiotzat hartzen baditu– dagokion bidetik (administratiboa edo ekonomiko-administratiboa).
- Ñ. Sozietatearen ordezkari gisa hartzekodunen konkurtsoan, kita eta itzaroteko espedienteetan, kiebra eta ordainketa-etenduretan eta kredituak gehitzea, murriztea eta baztertzeko eskatzeko ahalmena duten hartzekodunen judizioz kanpoko bileretan parte hartzea, hartzekodunen batzarretan parte hartzea eta aurkeztutako proposamenen alde edo kontrako botoa ematea eta sozietatearen alde mota guztietako konfiantza, kauzio edo berme pertsonalak eta kreditu edo zorren ordainketarako segurtasun-pignorazioak onartzea eta indargabetzea, perituak izendatu eta ezestea, sindikoaren kargua betetzea hartzekodunen konkurtsoetan edo kiebreten eta epaiketa edo edozein esku-hartze judizialean ordainketa-etenduren espedienteetako administratzaile judizial gisa aritzea, horri buruz legeak esleitutako ahalmen edo eskuduntza oro gauzatzuz.
- O. Sozietatea ordezkatzeko auzi judizialean, auzi-jartzaile gisa edo beste edozein kontzeptutan, auzi zibiletan, borondatezko jurisdikzioko auzietan, auzi kriminaletan, lan-arlokoetan nahiz administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, epaile eta auzitegi arrunt nahiz berezien aurrean –baita goi-mailako auzitegien eta Auzitegi Nagusian ere–, mota guztietako egintzak, aplezioak eta helegiteak –baita kasazio- eta berrikuspen-helegiteak ere– aurkeztuz, erantzunez eta jarraituz. Auzietarako botere orokorrak dituzten auzitegiarako abokatu eta prokuradoreei egoki iritzitako ohiko ahalmenak esleitzea –baita auzigaiak formalizatzeko eta sozietatearen alde ezarritako edozein bahitura indargabetu eta sortzea onartzeko ere–, akzio eta apelazioetan atzera egitea eta mota guztietako adierazpen eta berrespenak egitea. Mota guztietako epaitegi eta auzitegien aurrean posizioak absolbitzea.
- P. Sozietatearen antolakuntza komertziala eta negozioak zuzentzea, sozietatearen mota guztietako korrespondentzia jaso eta sinatzea, eta aduana, trenbide, itsasontzi, telegrafo eta bestelako puntuetatik hari zuzendutako mota guztietako objektuak jasotzea, baita pakete postal, ziurtagiri, postazko igorpen eta igorpen telegrafikoak ere.
- Q. Merkataritza-eragiketarako hirugarrenen intereserako eta hirugarrenen kontura finkatzea, fidantzamenduarekin modu solidarioan edo subsidiarioki edo baita beste fidatzailekide batzuekin



modu solidarioan ere, beharrezkoa izanez gero, uko eginez eskusio- eta banaketa-onurei eta bermerako polizak izenpetzeari.

- R. Barne-mailako araudiak eman eta onartzea, langileak eta sozietatearen zerbitzuekin lotutako beste edozein langile izendatu, kendu eta banantzea, eta haien eskuduntzak eta betebeharrak zehaztea eta soldatak, lansariak eta ordainsariak zehaztea.
- S. Proiektuak, aurrekontuak, azterketak eta baldintza-agiriak formulatu eta onartzea. Mota guztietako markak, patenteak eta pribilegioak eskuratu, eta guztiz edo partzialki ordaintzea. Mota guztietako baimen eta emakida administratiboak eskatzea.
- T. Mota guztietako aseguruak kontratatzea mota guztietako arriskuen aurka, laneko arriskuetatik edo gizarte-segurantzatik eratorritakoak barne, eta kalte-ordainak kobratzea, hartarako edozein motatako aseguru-entitate edo mutualitateekin polizak izenpetuz.
Mota guztietako garraioak kontratatzea.
- U. Kreditu-kontuak ireki, jarraitu, itxi eta jarraitzea. Segurtasun-kutxak ireki, eta edozein banketxe edo kreditu-erakunderekin kontratatzea.
- V. Administrazio Kontseiluari dagozkion botereak guztiz edo partzialki ordezkatzeari, eta horiek mota guztietako botereei eta konpainiaren interesetarako egokien irizitako pertsonari ematea.

18. art. Kontseilua eratutzat joko da kideen erdia gehi bat bilerara bertaratzen denean edo behar bezala ordezkaturik dagoenean.

Bilerara bertaratutako edo ordezkaturik dagoen gehiengoaren aldeko botoaren bidez egingo dira akordioak. Berdinketa kasuan, lehendakariak izango du kalitateko botoa. Hala eta guztiz ere, Administrazio Kontseiluaren ahalmenak modu iraunkorrean eskuordetzea baimentzeko erabakia hartzeko edo eskuordetze hori egin behar duten administratzaileak izendatzeko, Administrazio Kontseiluaren bi herenen aldeko botoa behar da.

19. art. Administrazio Kontseiluan hutsik geratutako lekuak Kontseiluak berak bete ahal izango ditu, Batzar Orokorreko kideetatik leku horiek beteko dituzten pertsonak izendatuz. Izendapen horiek berresteko edo hutsik dauden postuak behin-betiko beteko dituzten pertsonak izendatzeko egiten den lehenengo Batzar Orokorrera arte beteko dute kargua modu horretan izendatutako kontseilariek.

C) LEHENDAKARIA

20. art. Estatutu hauetako artikuluetan esleitutakoez gainera, ahalmen hauek izango ditu lehendakariak:

- 1.) Sozietatea eta haren Administrazio Kontseilua modu iraunkorrean ordezkatzeari.
- 2.) Administrazio Kontseilua deitu eta gidatzea, eztabaidak zuzentzea, berdinketak kalitate botoarekin ebaztea, eta hartutako akordioak bete daitezen zaintzea. Batzar Orokorra deitu eta gidatzea. Batzarretako edo akziodunen bileretako akten ziurtagiriak onartzea.
- 3.) Administrazio Kontseiluko eta akziodunen batzar orokorreko bileretako aktak sinatzea eta idazkariak egindako ziurtagiriak ikus-onestea.
- 4.) Sozietatearen zerbitzu guztiak ikuskatzea eta sozietatearen jardura nola garatzen den zaintzea.



- 5.) Estatutu hauek eta Batzar Orokorrak, Administrazio Kontseiluak eta batzordeek egindako akordioak bete daitezen zaintzea eta haien erabakiak gauzatzea.
- 6.) Administrazio Kontseiluak eskuordetutako ahalmenak gauzatzea.
- 7.) Sozietatearen interesak defendatzeko dagozkion egintza judizialak erabil daitezen adostea.
- 8.) 14.999,99 euro arteko ordainketak baimentzea.

Lehendakaria ez dagoenean edo edozein arrazoi dela medio Batzarrera joan ezin duenean, lehendakariordeak edo adinez nagusiena den kontseilariak ordezkaturiko du haren ahalmen guztietan.

D) KONTSEILARI DELEGATUA

21. art. Sozietateak kontseilari delegatu bat edo gehiago izan ditzake, Administrazio Kontseiluak izendatuta. Kontseilari delegatuak izendatzean, horien ahalmenak zehaztu ahal izango ditu Kontseiluak. Hala egin ezean, akordioen exekutatuak gisa hartuko da, eta, beraz, Kontseiluak dituen ahalmenak izango ditu, eskuordetu ez direnak salbu –sozietatearen ordezkariak judizial, komertzial eta administratiboarekin lotutakoak–, eta, aldi berean, ahalmen horiek guztiak edo zati bat eskuordetu ahal izango du.

E) ZUZENDARI KUDEATZAILEA

22. art. Zuzendari kudeatzaileak Administrazio Kontseiluak emandako eskuduntzak izango ditu.

IV. TITULUA

BALANTZEA, GALERA-IRABAZIEN KONTUA, ETEKINAK BANATZEKO PROPOSAMENA

23. art. Urriaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da ekitaldi soziala, lehenengoa izan ezik. Eraketa-eskritura sinatzen den egunean hasiko da lehenengo ekitaldia. Administrazio Kontseiluak hiru hilabeteko epean formulatu beharko ditu urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena, sozietatearen urtaldia ixten den egunetik kontatzen hasita. Urteko kontuetan jaso beharko dira balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria.
24. art. Batzar Orokorrak izendatutako kontu-auditoreek urteko kontuak eta kudeaketa-txostena berrikusi beharko dituzte. Administrazioaileek sinaturiko kontuak entregatzen direnetik hiru hilabeteko epean, auditoreek txosten bat egin beharko dute, Kapital Sozietatei buruzko Legean aurreikusitako moduan.
25. art. Batzar Orokorrak zehazturiko moduan banatu eta aplikatuko dira ekitaldi sozial bakoitzean lortutako etekinak. Kasu bakoitzean, erreserba eta irabaziei buruz emandako lege-xedapenak bete beharko dira; bereziki, Sozietate Anonimoen buruzko Legeko 214. artikuluan xedaturikoa.

V. TITULUA



SOZIETATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

26. art. Legez ezarritako kasuetan edo akziodunen batzar orokorrak egindako akordio bidez desegingo da sozietatea, Kapital Sozietateen Legearen testuategina onartzen duen 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilean jasotako baldintzekin bat.

Likidazioa:

Sozietate nahitaez desegitea adostu ondoren, desegitea praktikan jartzeko, Kapital Sozietateen Legearen testuategina onartzen duen 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilean jasotako arauak aplikatu beharko dira.

Desberdintasunak:

Aurkaratzeko akzioak aurkezteko aukera albo batera utzi gabe, sozietatea indarrean dagoen bitartean edo hura likidatzean akziodunen eta sozietatearen artean edo akziodunen artean sozietateari buruz egon daitezkeen desberdintasunak aldean arteko akordio bidez konpondu beharko dira, eta, akordiorik ezean, arbitrajepean ezarriko dira, Kapital Sozietateei buruzko Legearen arabera, auzitegi arruntek ebatzi beharreko kasuetan izan ezik.

Batzar Orokorrak konponduko ditu Administrazio Kontseiluaren barruan sorturiko desadostasunak.